

8. gidoia: Bakartuta

8. gidoiaren laburpena

Gidoi honek Izar artefaktuaren eraginez aldi baterako eraldaketa fisikoak izango dituzten hiru ikasleren istorioa du ardatz. Eraldaketa horien ondorioz, beren jazarpenaren biktimen ikuspegitik esperimentatuko dute bizitza. Egunean zehar, pertsonaiek hainbat bazterketa sozial eta iseka pairatuko dituzte ikastetxean, eta ikusmen-arazoak, arraza-diskriminazioa eta zailtasun fisikoak ere izango dituzte. Esperientzia horiek jazarleei nola eragiten dieten erakusten du narratibak. Azkenean, beren ekintzei buruz hausnartu eta barkamena eskatuko diote biktimari, enpatia- eta ulermen-mezua sustatuz.

Helburu pedagogikoa

Gidoi honen helburu pedagogikoa da ikasleen artean enpatia eta ulermena sustatzea, narratiba interaktiboaren bidez bazterketa sozialaren eta jazarpenaren efektuak biktimen ikuspegitik esperimentatu ondoren. Bakoitzaren berezitasunak aitortzeak eta errespetatzeak duen garrantzia azpimarratzeaz gain, eskola-giro inklusibo eta solidarioa sustatzen du istorioak. Gainera, tratu txarren eta bazterketaren zantzuen aurrean sentsibilizatu egin nahi dira ikasleak, jazarpena identifikatzen eta horren aurka jarduten irakatsiz, eta, aldi berean, hainbat balio nabarmendu nahi dira, hala nola elkarri laguntzea eta norberaren ekintzei buruz hausnarketa kritikoa egitea.

Eszenen taula

Eszena	Deskribapena	Elkarrizketak
--------	--------------	---------------

E00	Hiru ikasle iseka egiten ari zaizkio beldurtuta dagoen ikaskide bati. Eloik eta Naroak etenarazi eta errieta egiten diete, eta jazarleek oldarkor erantzuten diete.	<p>Unai (1. jazarlea): E! Itsua zaude, ala? Ez al duzu ikusten nire armairutxoaren gainean zaudela?</p> <p>Joritz (2. jazarlea): Kar-kar-kar! Hain motela izanik, kostatzen zaio baztertzea! Ez eman presarik! Urko (3. jazarlea): Etxera itzuli eta molestatzeari utzi beharko zenioke. Ez al zaizu iruditzen?</p> <p>Eloi: Unai, nola sentituko zinateke baten batek zu horrela tratatuko bazintu? Korridorea zurea dela uste duzu, ala?</p> <p>Naroa: Hemen denok ondo sentitu nahi dugu. Horrelako portaerak onartzen baditugu, nola lortuko dugu hori?</p> <p>Joritz: Zuek ez sartu; ez dauka zuekin zerikusirik.</p> <p>Urko: Zergatik ez zarete ergel honekin izkina batera negar egitera joaten?</p> <p>Eloi: Uste dut hemen zerbait ikas dezakegula. Zergatik ez gara hau konpontzen saiatzen, denok ondo senti gaitezen?</p> <p>Naroa: Ziur badagoela elkar tratatzeko modu hobetik. Pentsa dezagun, denon artean, zer konponbide egon daitezkeen.</p> <p>Unai, Joritz, Urko: Buaaa! Utz gaitzazue bakean.</p>
-----	---	--

E01	<p>Eloik, poltsikoan Izar artefaktua daramala, inpultsiboki jokutzen du frustrazio-une batean. Izarrek erreakzionatu egiten du, eta aldi baterako aldaketa bat eragiten du jazarleengan, bizitza biktimen ikuspegitik esperimenta dezaten.</p>	<p>Eloi: (Arnasa sakonki hartuz) Nahiago nuke baztertuta eta erridikuluan egonik zer sentitzen den ulertuko balute.</p> <p>Izar keinuka hasten da eta madarikazio bat botatzen du. Hiru jazarleak eraldatu egiten dira: Unairi betaurrekoak ateratzen zaizkio, Joritz loditu egiten da eta Urkori arraza aldatzen zaio.</p> <p>Unai: Zer gertatu da? Ezin dut ondo ikusi... Hau da hau desorientazioa.</p> <p>Joritz: Zergatik sentitzen naiz bat-batean hain desberdin? Hau oso deserosoa da.</p> <p>Urko: Aldatu egin al da nire larruazala? Hau bai ez nuela espero. Arraioa!</p> <p>Naroa: Badirudi Izar ari zaigula garrantzitsua den zerbait erakusten.</p> <p>Eloi: Ez nuen horrela gertatzerik nahi, baina, beharbada, gauzak hobeto ulertzen lagunduko digu.</p> <p>Joritz: Hau aldi baterako al da? Zer gertatzen ari den ulertu behar dut.</p> <p>Naroa: Bai, aldi baterako da. Baina zuen ekintzei buruz ikasteko eta hausnartzeko aukera bat da.</p>
E02	<p>Izenburua: Unairen eguna – 8:57. Unairen planoak; gero, panoramikara pasatzen gara. (Panoramikak</p>	<p>Izenburua: Unairen eguna – 9:30</p>

	<p>automaticoki erakutsi behar ditu Unairen pentsamenduak ausaz jasotzen dituzten bunbuiloak).</p>	<p>1. ikaslea: Unai, zure betaurrekoekin arazoak izaten ari zarela dirudi. Dena ondo?</p> <p>2. ikaslea: Betaurrekoak doitzeko laguntzarik behar? Ohitzea zaila izaten da batzuetan.</p> <p>3. ikaslea: (adeitsua izaten saiatuz) Betaurrekoak doitzeko leku lasaiagoa behar baduzu, nire eserlekua erabil dezakezu, leihotik hurbil dago-eta.</p> <p>4. ikaslea: Apur bat deseroso ikusten zaitut. Nahi al duzu zure liburuak eramaten laguntzea?</p> <p>5. ikaslea: Atea hemendik dago; neuk gidatuko zaitut, kezkatu beharrik izan ez dezazun.</p> <p>Unai: Eskerrik asko, lagunok. Asko estimatzen dut zuen laguntza.</p> <p>5. ikaslea: Noski, elkarri laguntzeko gaude hemen.</p>
E03	<p>9:30. Ikasgelaren panoramika. Askatasun-tarte bat uzten da eta gero irakaslearen galdera bat irteten da. Ezin duenez ikusi arbelean zer jartzen duen, ezin du ondo erantzun, eta denak barrez hasten dira. Bizpahiru aldiz errepikatzen da prozesua.</p>	<p>Irakaslea: Galdera erraz batekin hasiko gara. Unai, esango al didazu Euskadiko hiriburua zein den?</p> <p>1. erantzuna: Donostia</p> <p>2. erantzuna: Bilbo</p> <p>3. erantzuna: Gasteiz.</p>

		<p>Irakaslea: Ez da zuzena. Gasteiz da erantzuna.</p> <p>Irakaslea: Goazen beste galdera batekin. Nola du izena Bilbo zeharkatzen duen ibaiak?</p> <p>1. erantzuna: Nerbioi ibaia.</p> <p>2. erantzuna: Ebro ibaia</p> <p>3. erantzuna: Bidasoa ibaia</p> <p>Irakaslea: Gaur erdi lo zaude, ez? Erantzun zuzena Nerbioi ibaia da.</p> <p>[Ikaskideen barreak]</p>
E04	<p>Unairen eguna – 11:50. Ikastetxeko jolastokia. 360 panoramika, mugitzeko hainbat aukerarekin.</p> <p>Edozein aukera hautatuta ere, Unai estropezu egiten du eta erori egiten da, baina ikaskideen erreakzioa bestelakoa da.</p>	<p>Panoramika: Sartu barruan, Futbol-zelaia, Gimnasioa.</p> <p>[Zinematika Unai erorita dagoela] 1. iruzkina: Unai, ondo al zaude? Lagunduko dizugu!</p> <p>2. iruzkina: Betaurreko berriak behar dituzula dirudi. Lagunduko al dizut erizaindegia joaten?</p> <p>3. iruzkina: Denok egiten dugu estropezu inoiz edo behin; ez kezkatu. Jaikitzen lagunduko al dizut?</p>

		<p>[Azken panoramika] Unai laguntza eskaintzen dioten ikaskide batzuk dauzka inguruan. Sakonean, elkarrizketa bat entzuten da, jolastokia denentzat seguruagoa izateko zer egin daitekeen aipatuz.</p>
E05	<p>Joritzen eguna – 9:11. Gimnasioa, zaldi-jauzia egitear. Ikasleak inguruan daude. 360 panoramika, pertsonaiekin elkarrekintzan aritzeko aukera ematen duena, beren iruzkinak entzuteko. Denekin elkarrekintzan aritu ondoren egin daiteke jauzia. Jauzia ongi egin arren, babes-giroak iraun egiten du. (zinematika).</p>	<p>360 panoramika: 01. ikaslea: Hartu zure denbora, Joritz! Egin dezakezu!</p> <p>02. ikaslea: Aurrera, Joritz! Praktikatzen ikusi zaitugu eta badakigu lortuko duzula.</p> <p>03. ikaslea: Denok dauzkagu egun baldarrak; ez kezkatu, Joritz. Animo!</p> <p>Irakaslea: Joritz, teknikan jarri arreta, ez abiaduran. Lasai hartu.</p> <p>04. ikaslea: Gogoan izan denok ari garela ikasten. Ahal duzun ondoen egin eta kito.</p> <p>[Zaldian jauzi egiten du] 01. ikaslea: Oso ongi, Joritz! Banekien lortuko zenuela.</p> <p>02. ikaslea: Teknika bikaina! Hori da garrantzitsuena.</p>
E06	<p>Joritzen eguna – 14:05. Kafetegiaren 360 panoramika. Kafetegian, Joritz egoera deserosoan dago, berriki izandako aldaketa fisikoen ondorioz. Eszenak 360 ikuspegi panoramikoa erabiltzen du, erabiltzaileei eskola-jangelako giroa miatzeko aukera emanaz. Joritzen ikaskideak ulerkorrak</p>	<p>01. ikaslea: Joritz, opil berriak dastatu al dituzu? Nahiko onak dira.</p> <p>02. ikaslea: Nahi baduzu, fruta pixka bat ere badut. Probatu nahi al duzu?</p> <p>03. ikaslea: Joritz, ondo al zaude? Zerbait behar baduzu, esan iezaguzu.</p> <p>04. ikaslea: Zatoz eta eseri gurekin, Joritz. Leku asko dago hemen.</p>

	izaten ari dira eta laguntza eskaintzen diote, taldean integratzen saiatuz eta taldekide sentitzen dela ziurtatuz, eta, itxuraldatuta dagoen arren, jarrera positiboa agertzen dute harekiko.	[Iruzkin guztien gainean sakatzean, zinematika batera eta hurrengo eszenara pasatzen da]
E07	Joritzen eguna – 17:05. Eskolaz kanpoko futbola. Joritz aulkian dago jokoaren hasieran, duela gutxi izan duen eraldaketa fisikoaren ondorioz. 360 panoramikak futbol-zelaiko giroa ikusteko aukera ematen du.	<p>ENTRENATZAILEA: Joritz, gaur atsedena emango dizugu, taktika pixka bat behatu eta ikas dezazun. Bien bitartean, elkarrekin egingo dugu lan, zure egoera fisikoa hobetzeko.</p> <p>1. JOKALARIA: Ez kezkatu, Joritz; guztiok izaten ditugu egun onak eta egun txarrak. Hemen izango gaituzu, prest zaudenean laguntzeko!</p> <p>2. JOKALARIA: Badakit hobeto sentitzen zarenean ekarpen handia egingo diozula taldeari, beti bezala.</p> <p>3. JOKALARIA: Gaur zergatik ez diguzu aulkitik estrategia batzuekin laguntzen? Jokoari buruz daukazun ikuspegia baliagarria izaten da beti.</p>
E08	Urkoren eguna – 8:55. Urko liburutegira doa eskolara joan beharrean. 360 panoramika, liburutegiko giro lasaia erakusten duena.	1. ikaslea: Ikusten al duzu mutil berri hori? Orain arte ez dut hemendik ikusi. Ba al dakizu zein izen duen?

		<p>2. ikaslea: Ez nago ziur, baina gure ikasketa-taldearekin bat egitera gonbidatu beharko genuke. Konpainia pixka batek on egingo lioke segur aski.</p> <p>3. ikaslea: Garbi dago berria izateak zaila izan behar duela. Ongi etorria sentitzen lagundu diezaiokegu.</p> <p>4. ikaslea: Bai, goazen geure burua aurkeztera eta ezertan laguntza behar duen ikustera.</p>
E09	<p>Urkoren eguna – 11:35</p> <p>Jangela</p> <p>Bazkalordua da eta jangela oso animatuta dago. Urko, Izarren eraginez oso itxuraldatuta, integratzen saiatzen da. Kamerak jangelaren 360 graduko ikuspegi panoramiko eskaintzen du, ikasleen arteko interakzioak harrapatuz. Giro horretan, ikasle batzuk Urkoren presentziaz jabetzen dira, eta modu inklusiboan jardutea erabakitzen dute, haiekin bat egitera gonbidatuz, ikasle berriarekiko irekiera- eta ongietorri-jarrera erakutsiz.</p>	<p>[01. ikaslea] Hara, gaur mutil berri bat daukagu. Gurekin esertzera gonbidatu behar genuke. Zer iruditzen zaizue?</p> <p>[02. ikaslea] Ideia ona. Gauzek hemen nola funtzionatzen duten erakutsi ahal izango diogu, eta ongi etorria sentitzen dela ziurtatuko dugu.</p>

E11	<p>Zinematika.</p> <p>Hurrengo egunean, hiru jazarleak Ibonengana joaten dira eta barkamena eskatzen diote.</p> <p>Ainara eta Eloi pozik ari dira hitz egiten.</p>	<p>[Ainara] Begira, Iboni barkamena eskatzen ari zaizkio. Dirudienez, benetan egin dute gogoeta beren ekintzen inguruan.</p> <p>[Eloi] Izugarria da enpatia pixka batek zenbat lor dezakeen. Espero dut horrek beren jokabideen inpaktua hobeto ulertzen lagunduko diela.</p> <p>[Ainara] Hori da. Eta gogoan izan Izar tresna ahaltsua dela. Kontuan izan behar dugu noiz eta nola erabili.</p>
-----	--	---